

ITSASKROSA - GYMKHANA



1. DESKRIBAPENA

Irailaren 20ko arratsaldean, Zarautz Kirol Elkarteak, Patineskolak eta Zarautz eta Getariako Udalek antolatuta, Itsas Krosa kirol probat ospatuko da 16 urtetik aurrerako pertsona guztientzat luzatua. Egun hau aprobetxatu nahi da ZKE herrira zabaltzeko eta era berean bere kirol ezberdinak ezagutzera emateko. Horretarako, hiru ekitaldi nagusi edukiko dira: haurrentzako Gymkhana, halterofilia erakustaldia eta herri kirol erakustaldia.

Gymkhanari dagokionez, LH3 eta DBH2 bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute, benjamín, alebin eta infantil mailetan banatuak. 4 hurrek osatutako taldeak egin beharko dituzte eta mistoak izan daitezke (ez da sexu diferentziarui egongo). Goizean zehar hurrek, 6 kirol ezberdinetako jokoetan parte hartuko dute: Errugbia, Eskubaloia, Futbola, Halterofilia, Saskibaloia eta Xakea.

2. IZEN EMATEA

Izena emateko, ondorengo datuak beharko dira:

- Taldearen izena.
- Kirolarien izenak.
- Kontaktu telefonoa.

Izena emateko, aukerak:

- Sare sozialak: @itsaskrossa edo facebook.com/itsaskrossa.
- ZKE: 943 831 463 – zke-cdz@zarautz.com.
- Itsaskrosaren e-posta: itsaskrossa@gmail.com
- Izen-ematean laguntzen duten ikastetxeetan.

Izena emateko epea: 2014-09-19an arratsaldeko 15:00etan.

3. ORDUTEGIAK

09:00 Alebinen Gymkhana hasiera (11:00ak ingurura arte).

10:00 Benjaminen Gymkhana hasiera (12:00ak ingurura arte).

11:00 Infantilen Gymkhana hasiera (13:00ak ingurura arte).

Ordutegi hauek aldaketak jasan ditzateke izena emandako taldeen arabera eta abixatuak izango dira.

4. JOKOAK

Kirol bakoitzak proba bat edukiko du puntuaketa sistema batekin:

ERRUGBIA: Jaurtiketak makilen artean.

Errugbiko bi porteria irudikatzen duten bi makil izango da helburua. Bertara, 6 distantziatik baloia bota beharko da, makilen artean pasaz. Distantzia bakoitzak puntuaketa bat edukiko du eta bakoitzetik taldeko 2 partaidek botako dute. Puntu guztien batuketa egingo da. Talde guztiek botatzen dutenean, puntu gehien dituen taldeak 10 puntu lortuko ditu sailkapen nagusirako, bigarren onenak 9 puntu, hirugarren onenak 8 puntu, eta honela 0 puntu banatzera iritsi arte.

ESKUBALOIA: Jaurtiketak atera.

Eskubaloiko porteria bati jaurtiketak bota beharko zaizkio. Porteriak zulo ezberdinak izango ditu eta bakoitzak puntu kopuru bat. Jokalari bakoitzak 5 jaurtiketa izango ditu, taldeak, guztira 20. Puntu guztien batuketa egingo da. Talde guztiek botatzen dutenean, puntu gehien dituen taldeak 10 puntu lortuko ditu sailkapen nagusirako, bigarren onenak 9 puntu, hirugarren onenak 8 puntu, eta honela 0 puntu banatzera iritsi arte.

FUTBOLA: Jaurtiketak atera.

Futboleko porteria bati jaurtiketak bota beharko zaizkio. Porteriak zulo ezberdinak izango ditu eta bakoitzak puntu kopuru bat. Jokalari bakoitzak 5 jaurtiketa izango ditu, taldeak, guztira 20. Puntu guztien batuketa egingo da. Talde guztiek botatzen dutenean, puntu gehien dituen taldeak 10 puntu lortuko ditu sailkapen nagusirako, bigarren onenak 9 puntu, hirugarren onenak 8 puntu, eta honela 0 puntu banatzera iritsi arte.

HALTEROFILIA: Altxatzeen teknika.

Taldeko partaide bakoitza, aurretik ikastaro txiki bat jaso ondoren, halterofiliako barraren altxatze bat egin beharko du. Epaila batzuk egongo dira, altxatzearen teknika ebaluatuko dutenak, altxatze bakoitzari 0tik 10erako puntuaketa emanaz. Lau partehartzaileen puntuen media izango da sailkapen nagusirako balioko dueña.

SASKIBALOIA: Two-Ball.

Saskibaloiko saski bati jaurtiketak egin beharko zaizkio. Lurrean markaturik egongo diren leku ezberdinetatik. Marka bakoitzak puntuaketa ezberdina izango du, distantzia eta sailtasunaren arabera. Jaurtiketak bikoteka egingo dira, baloi bakarrarekin (norberak bere errebotea hartu eta lagunari pasaz), bikote bakoitzak 2 minutu edukiko dituelarik ahal dituen puntu gehien sartzeko. Taldeko bi bikoteek botatzen dutenean, puntu gehien dituen taldeak 10 puntu lortuko ditu sailkapen nagusirako, bigarren onenak 9 puntu, hirugarren onenak 8 puntu, eta honela 0 puntu banatzera iritsi arte.

SASKIBALOIA: Lasterketa azkarra.

Parte hartzen duten taldeen artean, 5 minutuko 4 partida jokatuko dira zozketaz. Partida irabaztea 2,5 puntu emango ditu sailkapen nagusirako, tablak eginez gero, puntu bakarra. Taldekideek lortzen dituzten puntu kopuruaren batuketa sailkapen nagusirako balioko dute.

XAKEA: Txapelketa azkarra.

Taldeko partaide bakoitzak, zozketaz, beste taldeetako jokalaria baten aurka partida bat jokatuko dute, 5 minutuko iraupena dutenak. Hasi aurretik, azalpen txiki bat egingo da araudiari buruz. Denbora amaitzean, partida irabazi duenari 2 puntu emango zaizkio sailkapen nagusirako eta tablatan amaituz gero, puntu erdia partaide bakoitzarentzat.